

COVID-A ETA NEGAZIONISMOA



Asier Martinez
Oier Narraspe
Adam Ouafa
Oier Plazaola

AURKIBIDEA

Gaia	3
Laburpena	3
Hipotesia	3
Marko teorikoa	3
Metodologia	9
Ondorioak	10
Bibliografia	11

GAIA:

Gizartearen COVID txertoa eta COVID pasaportearen kontrako iritzia. Adibidetzat Djokovic eta Australiaren arteko liskarra hartuz, eta negazionistek beste COVID-a ez den gai batekiko ere duten iritzi aldatze zaildua.

LABURPENA:

Gure ikerketarekin erakutsi nahi dugu, COVID-19 birusaren txertoa eta honen pasaportearen aurka dagoen jende kopurua, gu harritu egin gara ehuneko hauek ikusita, uste genuena baino negazionista gehiago daude, ohitu egin gara txertatutako jendea ikustera edo ezagutzera. Espainian, adibidez, txertoa ipini ez duten 3,2 milioi 12 urte baino gehiagoko pertsona daude dio "Herlado" aldizkariak. Honekin batera, beraien uste edo esperientzian bakarrik oinarritzen direla, eta ez oinarri zientifikoetan edo adituen esanetan.

Gure bi uste hauek asetzeko, negazionisten iritziak eta hauei buruz sozialki esaten dena aztertuko dugu. Gainera, adibidetzat Djokovic eta Australiako Open-aren harteko liskarra hartuko dugu, legeek zer dioten, tenistak eta bere babesleek zer dioten...

Hau aurrera eramateko, jendeak COVID-arekiko eta negazionistei buruzko beraien iritzia zein den jakiteko, Urretxu eta Zumarragako kaleetara aterako gara. Galdetegi bat sortu eta jasotako erantzunekin ondorio batzuetara iritsiko gara.

HIPOTESIA:

Txertoa ipini nahi ez duen jendeak, hau da, negazionistak, beraien iritzi edo kasuetan bakarrik oinarritzen dira eta ez oinarri zientifikoetan, baita COVID-arekin lotutako gaietan ez bada ere.

MARKO TEORIKOA:

Marko teorikoa ikertu beharreko arazoari buruz eskura daitezkeen analisi teoriko iturri guztiei buruzkoa da. Gainera, informazioaren bidez elikatuko da ikerketaren hasiera, egin nahi dugunari forma emateko. Hau da, planteatzen den ikerketa-gaia jorratzen duten egile nabarmenenak ere aurkezten dira

- Negazionismoa

Egia deseroso bat saihesteko errealitatea ukatzea aukeratzen duten norbanakoek erakusten dute negazionismoa. COVID-az aparteko gaiei buruz ere badaude negazionistak, zientziaren kontrako iritzia dutenak edo gehiengoaren iritzia jarraitzen ez dutenak dira. Baina, mugimendu bat bihurtu da? Gizartean zuzenki eragiten du, iritziren bat sareetan asko ugaritzen bada, jendeak sinestu eta

mentalitatea aldatzen hasten zaie, egi ukatzaile bihurtuz, eta etengabe gertatzen da oso eskura baitugu edozein informazio sareei esker.

Negazionismoa, COVID garaian oso nabari ugaritu da, zientzialari eta erakundeekiko mesfidantza, haien izaera fidagarria edo informazio falta ulertzeko ezintasunaren ondorioz gertatu da. Birusa gai berria da, hipotesi berriak eta iritziak aldatzen joan daitezke, gainera mota askotara gainditu du jendeak birusa, beraz, gero eta gehiago edatu orduan eta iritzi pertsonal gehiago sortzen dira.

GURE IKERKETAKO HITZ EDO KONTZEPTU NAGUSIAK:

- **NEGAZIONISTAK:**

Kasu honetan txertoaren aurka edo txertoaren kontrako iritzia esaten diotenei esaten zaie. Gai honetaz aparte daudenei buruz ere egon daitezke negazionistak, kontrako iritzia dutenei edo gehiengoaren iritzia jarraitzen ez dutenak dira.

- **NEGAZIONISTEN IRITZIA:**

Negazionistek, argumentu ezberdinak erabiltzen dituzte beraien iritzia adierazteko, adibidez, “txertoa azkarregi atera da, ez dago ongi landuta, ez du eragin nahikorik oraindik”, “ni osasuntsu nago, ez dut holakorik behar”...

- **OINARRI ZIENTIFIKOA:**

Zientzietan ezagutza berriak eskuratzeko erabiltzen diren eragiketa multzoa da. Zientifikoa dela ziurtatzeko, ikerkuntza metodo batek oinarria eta neurketan eduki behar du eta baita arrazoiketan ere. Metodo zientifikoa XVII. mendetik natur zientziak ezaugarritu dituen prozedura da; behaketa sistematikoa, neurketa, esperimendazioa, formulazioa, analisisa eta hipotesien aldaketak osatzen dute.

- **PSEUDOZIENTZIA:**

Pseudozientziak zientzialari izan nahi ez duten diziplina edo teoriak dira. Horrek, ezinbestean, onartutako teoria zientifikoekin talka egitera bultzatzen ditu. Haien kopurua izugarria da, eta jende asko hunkitu dute historian zehar, eta oraindik ere hala egiten dute, adibide garbienak, astrologia, homeopatia eta parapsikologia pseudozientziak.

- **OINARRI ZIENTIFIKOA:**

Zientzietan ezagutza berriak eskuratzeko erabiltzen diren eragiketa multzoa da. Zientifikoa dela ziurtatzeko, ikerkuntza metodo batek oinarria eta neurketan eduki behar du eta baita arrazoiketan ere. Metodo zientifikoa XVII. mendetik natur zientziak ezaugarritu dituen prozedura da; behaketa sistematikoa, neurketa, esperimendazioa, formulazioa, analisisa eta hipotesien aldaketak osatzen dute.

+ HAUEN ARTEKO EZBERDINTASUNA

Pseuzientziak ezin du aurrera egin, porrot bakoitza baieztapen gisa interpretatzen baitu, eta kritika bakoitza eraso gisa... magia izango balitz bezala eta teknologia bezala, sasizientziak helburu praktiko bat du, ez kognitiboa, baina, magiak ez bezala, zientzia gisa aurkezten du bere burua, eta, teknologiak ez bezala, ez du zientziari ematen dion oinarririk.

Horrez gain, adibidetzat Novak Djokovicen, hau da, serbiar tenislariaren kasua hartuko dugu. Honek, "Australiako Openean" bere titulua defendatzeko txapelketara joan zen. Baina ez zuen espero esku hutsik itzuliko zenik, izan ere ez baitzioten herrialdera sartzen utzi, txertorik jarri gabe zegoelako. Izan ere, bere garaian uko egin zion hori egiteari.

- HAUSNARKETA

Duela bi-hiru urte Koronabirusa gure bizitzetara iritsi zen. Egun pandemia egoera baten aurrean aurkitzen gara. Egoera kritikoa da, zaila. Herritarron artean ere, egoera ez da erraza izaten ari. Etxean sarturik egon ginen hiru hilabetez, gutxi gorabehera, eta ordundik gai polemiko bat da, eta leku eta une oro entzuten dugu. Ondorioz, ez da gehien atsegin dugun gaia, baina gaiak hausnarketa sakon bat behar duela deritzogu.

Aurrez esan bezala, izaki orok sinesmen batzuk ditu eta egoera honetan ere, sinesmen eta iritzi horiek zeresan handia ematen dute. Iritzi ezberdinak daude birus honen inguruan alde batetik, osasun-baldintzei erantzuten dieten pertsonak daude, hau da; baina, bestetik, osasun-neurriei uko egiten dieten pertsonak (negazionistak). Gizartea bitan banaturik dagoela esan daiteke.

COVID-19-aren ondorioz gaixo eta heriotza ugari eman dira. Ia 3 milioi pertsona baina gehiagorekin akabatu du. Beraz, pertsonalki, ikus dezakegun bezala hau ez da tontakeritan ibiltzako gaia, honi aurre egin behar zaio, zentzuz jokatu behar da. Noski, negazionistak ere aipatu behar ditugu. Pertsona hauek ez dute osasun-neurrietan sinesten: ez dituzten txertoak jarri, musukorik ez dute janzten, etab.. Beraien usteetan hau gobernuek sortu duten fartsa bat da.

Iritzi ezberdinak onartu eta errespetatu behar direla deritzogu; beti ere, kontuan izanik gaixotasun honek munduan izan duen eragina handia izan dela kontuan izanik. Gaur egun, jende asko gaixotu da, baita hil ere: bai aurrez osasun arazo batez edo patologiarik gabeak, zahar eta gazteak. Pertsona guztien osasuna jokoan dago eta honi denok batera egin behar diogu aurre. Gaixotasun hau gure artean geratuko da, pandemia egoerarekin amaitzea lortuko den bezala, baina horretarako gizartea elkartu eta zentzuz jokatzeko ezinbestekoa dela deritzogu.

Azkenik, argi dago negazionistak eta gu ez garela inoiz lagunak izango; izan ere, ez baititugu pentsamendu berak.

+ Djokovic en kasuaren artikulua:

Novak Djokovic serbiar tenislariak, Australiako Teniseko zuzendari medikoaren dispentsa medikoarekin iritsi zen Melbournera, "Australiako Openean" bere titulua defendatzeko, Horraino, dena ondo, arazoa izan zen txertorik hartu gabe iritsi zela eta Australiak pandemiaren ondorio sanitario eta ekonomikoei aurre

egiteko ezarrita dituen neurri gogorrekin egin zuelako topo. Han, txertoa nahitaezkoa da lurraldera sartzeko, baina aldi baterako salbuespenak daude «egoera mediko larria» dutenentzat, aurreko sei hilabeteetan covid-19a hartzeagatik txertoa jaso ezin dutenentzat edo botikaren aurkako erreakzioa izan dutenentzat.

Zerk bultzatzen du jendea egia ukatzera:

Gizaki izatearen eta gizarte batean beste gizaki batzuekin bizitzearen zati bat modu argiak aurkitzea da gure sentimenduak adierazteko eta ezkutatzeko. Denialismoa ukapenaren hedapen bat da. Erroan, ukapena eta denialismoa gizakiek berauei eta beren buruei iruzur egiteko hizkuntza erabiltzeko garatu dituzten modu ugarien azpigaia besterik ez dira.

Ukatzea beste norbait egia esaten ari dela ez onartzea bezain sinplea izan daiteke. Ukatzea gure ahuleziak eta desira sekretuak ez onartzeko ditugun era anitzak bezain hondaezina izan daiteke. Ukapena iheskorra da.

Negazionismoa iritsi da Espainiara:

Nahiz eta Espainia liderra izan den txertaketa mailan, oraindik biztanleriaren %10a, ez da txertatu. Negazionismoa minoritarioa bezain ahalsua da. Honii aurre egin behar diogu, eta tresna guztiek huts egiten dute.

Nola egiten zaio aurre negazionismoari? Ezin da. Zientziak ezin du sinesmen baten aurka borrokatu, kodeak desberdinak dira, ez dira eztabaidatzen ere, ez baitira ikuspegi filosofiko beretik abiatzen. Beraz, nahiz eta grafiko gehiago argitaratu, ebidentzia gehiago, datu gehiago, zifra gehiago..., ez da nahikoa negazionistak konbentzitzeko.

Puntu horretara iritsita, ukazioari ezin bazaio aurre egin pentsamenduaren, zientziaren edo datuen bidez, Estatuak horren ondoriozko jokabideak aldatzen saiatu behar du. Kasu honetan, txerto bat jartzeko edo maskara eramateko beharra

Europako hainbat herrialdetan derrigorrezko txertaketa ipini da. Beraz, eskubideak eta askatasunak murriztea esan nahi duen guztiak negazionismoaren alderdi defendatzailearekin topo egiten du.

Negazionisten argumentuak:

‘*Diario enfermero*’ aldizkariak azalarazi zuen inkesta batek dienez, txertatuta ez daudenen artean, %72ak esaten du, ez direla txertatzen txertoak azkar garatuta daudelako eta, oraindik, ez direlako fio. Beste batzuk diotenez, txertoak osasunarentzat txarrak dira eta eta honek albo-ondorioak ekar ditzake. Hainbat pertsoneri inkesta bat egin zaie ea etorkizunean txertatuko diren ala ez jakiteko

asmotan, eta esaten dute, txertatuko direla denbora bat pasatutakoan eta txertoa seguroa dela ziurtatzen dutenean.

METODOLOGIA


Gure ikerketarako kalera aterako gara herritarrei COVID-az eta sinesmen edo iritziez galdetzera, ea sinesten duten, iritziak galdetuz eta birusa aztertzen ari diren zientzialariekiko duten konfiantza maila aztertuz. Hasteko negazionisten argumentuak bilatu genituen, informazioa bilduz. Ondoren, galderak sortu genituen, baina ez zuzenki negazionismoari buruz hitz eginez, galderen erantzunen arabera beraien sinesmenetatik ondorioztatzeko ea negazionisten sinesmenak zituen ala ez. COVID galderez gain beste mota nbbatzutakoak ere gehitu genituen, beste gai batzuekiko beraien iritzia jakinarazteko, gehienetan, COVID negazionistak beste gai batzuetan ere iritzi aldatze zaila dutelako.

Adina eta sexua inkesta guztietan bezala gehitu genituen gizartea taldetan banatzeko intentzioarekin, honela jakin dezakegu zein adin mailatan dagoen negazionista kantitate handiena.

ONDORIOAK:

Emakumeak: Emakumeen COVIDarekiko duten sinismena honako hau da. Berde argiaren zatiak adierazten du, zenbateko portzentaiak ez duten birusaren existentzia onartzen. Gure kasuan 11 emakumetik 3-k ez dute COVID-aren existentzian sinesten, aldiz, 8k COVID-aren existentzian sinesten dute, beste 8ak aldiz bai

(1) Adina / Edad zutabearen kopurua




(1) Adina / Edad zutabearen kopurua

Gizonak: Gizonezkoak COVIDarekiko duten sinismena honako hau da. Hori argiaren zatiak, zenbateko portzentaiak ez duten birusaren existentzia onartzen adierazten du. 10 gizonetatik 3-k ez dute COVID-aren existentzian sinesten, aldiz, 7k COVID-aren existentzian sinesten dute, beste 8ak aldiz

(3) Sinesten duzu COVID-aren existentzian, edo kontu bat dela uste duzu? / ¿Crees en la existencia del COVID, o piensas que

Kontu bat da, asmatutako
22,2%




Sinesten dut / Creo en
77,8%

COVID pasaportearen erabilgarritasuna:

Pasaporte COVID-az ere esan digutenez, ongi ikusten dute bere erabilpena, baliagarria dela uste dute “%65”, baina badaude funtziorik edo zentzurik ez duela uste dutenak ere, gainontzeko “%35”-a.

(10) COVID pasaporte baliagarria dela uste duzu? / ¿Es factible el uso del Pasaporte COVID? zutabearen kopurua

Ez / No
35,0%



Bai / Si
65,0%

Ondorioz, gure hipotesia kontutan hartuz, esan dezakegu arrazoi genuela edo berretsi dela, orokorrean, negazionisten iritziak desagokiak eta oinarri zientifikorik gabekoak direla, eta gainera, askotan, birus honez gain, beste gai batzuetan ere garrantzia handiegia ematen dietela beraien iritziari, zientziari kasurik egin gabe eta beraien iritzietan gztiz sinestuz.

BIBLIOGRAFIA:

- Alvarado, Fernando (2021). *¿Cómo nos engañan los negacionistas?*. Madrid, España: El Periódico [¿Cómo nos engañan los negacionistas?](#)
- Alvarez, Rober (2021). *Las 8 teorías falsas o sin evidencias que más repiten los negacionistas*. España: Newtral [Las 8 teorías falsas o sin evidencias que más repiten los negacionistas](#)
- Bachiller, Carmen (2021). *Alberto Nájera, científico: “Si hubiéramos hecho caso a bulos y negacionistas, estaríamos en un problema”*. España: elDiario.es
[Alberto Nájera, científico: “Si hubiéramos hecho caso a bulos y negacionistas, estaríamos en un problema”](#)
- Cervera , Ana (2021). *La tontuna de la mascarilla en la barbilla y el desarrollo cerebral*. España: YOROKOBU
<https://www.yorokobu.es/la-tontuna-de-la-mascarilla-en-la-barbilla-y-el-desarrollo-cerebral/>
- Diario enfermero (2021). *Estos son “los motivos” de los negacionistas para no vacunarse*. España: Diario enfermero [Estos son “los motivos” de los negacionistas para no vacunarse](#)
- Dieguez Lucena, Antonio (2022) Negacionismo, anticiencia y pseudociencias: ¿En que se diferencian?. España : The Conversation <https://theconversation.com/negacionismo-anticiencia-y-pseudociencias-en-que-se-diferencian-174831>
- Echarri, Miquel (2021). *El negacionismo es cosa de ‘boomers’* España: El País
[El negacionismo es cosa de ‘boomers’](#)
- Enguix, Salvador (2021). *Negacionismo, covid y la ciencia*. España: La Vanguardia
<https://www.lavanguardia.com/local/valencia/20211127/7888698/negacionismo-covid-ciencia.html>
- Fumanal, Verónica (2021). *Estos son “los motivos” de los negacionistas para no vacunarse*. España: Opinión [La ola del negacionismo acecha España](#)
- Mariño, Enrique (2021). *Negacionistas... hasta la muerte*. Madrid, España: Público mezu arrazistak aurki ditzakezu”, adierazi du psikologoak.
[Negacionistas... hasta la muerte](#)
- Roura Ferrer, Santiago (2022). *Djokovic en el ojo de la tormenta pandémica: ¿es justo impedirle participar en el Open de Australia?*. España: The Conversation [Djokovic en el ojo de la tormenta pandémica: ¿es justo impedirle participar en el Open de Australia?](#)